## Uztailak 03-25



# Udazabal
## 2025

Arrasate
ATE BERRIAK ZABALDUZ

uztaila

# 03-24

julio

musika

Hainbat lekutan kontzertuak

# ARRASATE BLUES



www.arrasateblues.com

Antolatzailea: ibai-arte | Arrasateko merkatari elkartea

| | | |
|---|---|---|
| UZTAILAK 03 | BB HARPER | 9:30 \| HERRIKO PLAZA |
| UZTAILAK 10 | ARNAU THE HONKY TONK LOSERS | 19:00 \| HERRIKO PLAZA |
| UZTAILAK 11 | SLOW TIMES BLUES BAND | 19:00 \| ZIGARROLA |
| | THE CHERRY BOPPERS MEET PATRICIA RECKLESS | 20:00 \| TAUPA |
| | JAC ELECTRIC | 22:30 \| IRATI |
| | JAM | 24:00 \| ATERPE |
| UZTAILAK 12 | ITZIAR YAGÜE & PAUL SAN MARTÍN | 13:00 \| MONDRAGON HOTELA |
| | NICO WAYNE TOUSSAINT Y MICHEL FOIZON | 18:30 \| MONTE |
| | TOFOL MARTINES BLUES BAND | 20:00 \| HERRIKO PLAZA |
| | SUGARAY RAYFORD & TRAVELLIN BROTHERS | 22:30 \| H. PLAZA |
| | JAM + ALE & THE HOPS | 24:00 \| ATERPE |
| UZTAILAK 13 | GREG IZOR & EMILIO ARSUAGA | 12:30 \| 1990 |
| | LOS GALERNA | 19:00 \| TAUPA |
| | LOST ACAPULCO | 21:00 \| TAUPA |
| UZTAILAK 17 | ANE LEUX | 19:30 \| MONDRAGON HOTELA |
| UZTAILAK 19 | MINGO BALAGUER BLUES BAND | 19:30 \| KAJOI TABERNA |
| UZTAILAK 24 | SUITE SEDA | 19:30 \| TAUPA |

uztaila

# Arrasate Musikal Big Band

04

julio

musika | 20:00 | Zaldibar frontoia




www.facebook.com/AMbigband

Talde hori 2000. urtean José Ramón Elkorok jarri zuen martxan, eta pare bat urte pasatu ondoren zuzendari dugu Zigor Martinez bergararra.

Partaide guztiak Arrasate Musikaleko ikasleak eta irakasleak dira: Arrasateko eta inguruko herrietako 23 musikariz osatua dago. Formazio horrek lau tronboi, lau tronpeta, bost saxo, piano, gitarra, bateria, perkusioa, baxua eta ahotsa lotzen ditu. Errepertorioa oso zabala da, eta hainbat estilo lantzen ditu: blueak, jazza, latin, bossa, funk, rock.

Taldeak hiru disko grabatu ditu: lehena Elgetako Espaloian 2005ean; bigarrena 2006ko azaroan, eta hirugarrena Durangoko Plateruena kafe antzokian zuzenean emandako kontzertuan.

Kontzertuak eman ditu Euskal Herri osoan, Arrasaten, Gasteizen, Bergaran, Elgetan, Vianan, Durangon, Gatzagan, Donostian, Amurrion.... baita estatuan ere, Errioxan, Bartzelonan, eta Munichen ere bai.

*Este grupo se puso en marcha en el año 2000 de la mano de José Ramón Elkoro y tras un par de años el director es el bergarés Zigor Martinez.*

*Todos los miembros son alumnas/os y profesoras/es de Arrasate Musikal. Está compuesto por 23 músicos de la localidad de Arrasate y localidades de la comarca. Esta formación asocia cuatro trombones, cuatro trompetas, cinco saxos, un piano, una guitarra, una batería, un bajo y una voz. El repertorio es muy amplio, trabaja diversos estilos, blues, jazz, latin, bossa, funk, rock.*

*El grupo ha grabado tres discos: el primero en el Espolón de Elgeta en el año 2005, el segundo en noviembre de 2006 y el tercero en el café teatro Plateruena de Durango en un concierto emitido en directo.*

*Ha actuado en numerosas localidades tanto en el País Vasco como en el estado español, en la Rioja, en Barcelona y también en Munich.*

uztaila

**04-05**

*julio*

# Mondra&Roll

**musika**

**Monterron parkean**




www.facebook.com/MondraNRoll/

2025eko Mondra & Roll festibalaren laugarren edizioa ederra dator. Azken hiru urteetan edukitako arrakastaren ostean, aurten ere, Nazioarteko zein Euskal Herriko punta puntako taldeak aurkezten dizkizuegu. Uztailaren 4an eta 5ean Arrasate, berriro, Europa osoko punk-rock jaialdi garrantzitsuenetako baten lekuko izango da.

*La cuarta edición del Mondra & Roll 2025 se presenta magnífica. Tras los éxitos cosechados en los últimos tres años, un año más, el programa presentamos a los grupos punteros. Los días 4 y 5 de julio Arrasate volverá a ser testigo de uno de los festivales de punk-rock más importantes de toda Europa.*

**The Selecter • The Toy Dolls • The Exploited • The Pioneers • D.R.I. • Street Dogs •**
**• Michael McColgan and The Bomb Squad ("Do Or Die" full album set) •**
**• The Real Mckenzies • Far For Finished• Heriotza • Béton Armé • Home From •**
**• Chuleria, Joder! • Rat-Zinger • Streetwise • Bromure • The Friday´s Crew • Puffer •**

# Fermin Muguruza

uztaila
**06**
julio

**musika** | **18:00** | **Monterron parkean**




https://www.muguruzafm.eus/index.html

Uztailak 6, igandea, Fermin Muguruzak bere indar eta mezuz betetako kontzertu berezia eskainiko du, Euskal Herriko musikaren historiako ikono garrantzitsuenetakoa izanik.
Bere ibilbide osoan zehar, borroka soziala eta kultura uztartu ditu eszenatokietan zein kaleko mugimenduetan, eta oraingoan ere, energiaz, mezuz eta erritmoz beteko du Monterron parkea, bere ibilbidearen 40. urteurrenean.

*El domingo 6 de julio, Fermin Muguruza ofrecerá un concierto especial lleno de fuerza y mensajes, siendo uno de los iconos más importantes de la historia de la música vasca.*
*A lo largo de toda su trayectoria, ha unido la lucha social y la cultura tanto en los escenarios como en los movimientos de calle, y en esta ocasión también llenará el parque Monterron de energía, mensajes y ritmo, en el 40 aniversario de su carrera.*

FERMIN MUGURUZA

uztaila

# 08 Transir

julio

zirkoa | 19:30 | Biteri Plazan



https://rojotelon.com/

Transir eraldaketari, aldaketari, bizitzari eta heriotzari buruzko jolasa da.
Zirkuan, egunerokoan bezala, bizitza dugu jokoan. Ez dugu heriotza baino gauza seguruagorik. Zoriontsuak, mugagabeak eta natura kontrolatzeko gai garela uste izan dugu. Gure giza izaera onartzeak, azkenean hilko garela onartzeak, dena amaitzen dela onartzeak eta dena gure mende ez dagoela onartzeak, agian, aukera emango digu orainaldian pentsatzeko, zer garen, zer sentitzen dugun eta zer nahi dugun.
Agian horrek bizitza beteago bat nola biziko litzatekeen adieraziko digu.

Transir es un juego sobre la transformación, el cambio, la vida y la muerte.
En el circo, como en el día a día, nos jugamos la vida. No tenemos nada más seguro que la muerte. Nos hemos creído felices, ilimitadas y capaces de controlar la naturaleza. Aceptar nuestra condición humana, aceptar que al final nos vamos a morir, que todo se acaba y que no todo depende de nosotras quizá nos permita pensar en el presente, en lo que somos, sentimos y queremos.
Quizá esto nos sitúe en cómo sería vivir una vida más plena.

uztaila

11

julio

# Dantza Ikuskizuna

dantza

20:00

Zaldibar frontoian




## Burnt - Lasala (Euskal Herria)

https://www.lasala-lasala.com/

## El Bolero - Altraste

https://altrastedanza.com/

## Clintch - Angel Duran (Katalunia)

https://angel-duran.com/

Udazabalen beti eman diogu dantzari bere lekua, eta aurten puntako hiru pieza motz ikusteko aukera izango dugu. Euskal Herriko bi talde arituko dira Zaldibarren: Lasala konpainiak **“Burnt”** izeneko bere azken lana ekarriko du Arrasatera, eta Altraste konpainiak, berriz, **“El Bolero”**. Kataluniatik, Angel Duran Performing Arts taldeak **“Clintch”** izeneko lana aurkeztuko digu. Dantzaren bitartez, dantzariek kontsumo-gizarteaz, sinpletasunaz eta maskulinitateaz hitz egiten digute.

*Dentro de la programación de Udazabal siempre hemos dado su espacio a la danza y este año podremos ver tres piezas cortas de compañías punteras. Este año disfrutaremos de dos compañías de Euskal Herria. Por un lado Lasala traerá a Arrasate su último trabajo titulado* **“Burnt”** *y por otro la compañía Altraste nos ofrecerá* **“El Bolero”**. *Desde Cataluña, Àngel Duran Performings Arts nos presenta* **“Clintch”**. *A través de la danza los bailarines nos hablan de la sociedad de consumo, de la simplicidad o de la masculinidad.*

uztaila
15
julio

# Azkena eta bagoaz

Antzerkia | 19:30 | Seber Altube Plazan

**Trapu Zaharrak (Euskal Herria)**



https://trapuzaharra.com/eu/

Kale Antzerkiko aktore batek  Komiko batek, une txarrean dagoela, Areto Antzokira jotzea erabakitzen du.
Dirua biltzeko, crowdfunding bat martxan jarriko du, bere proiektu abangoardistaren bi ekitaldi kalean antzeztuz: “Bost ordu Mariorik gabe”.

Un cómico en horas bajas decide pasarse al Teatro de Sala .
Para recaudar fondos montará un crowdfunding representando en la calle dos actos de su nuevo proyecto vanguardista:  “Cinco horas sin Mario”.



# Chruinne

uztaila
**16**
*julio*

musika

19:00

Santa Barbara parkean

*Chruinne taldea (Galizia)*



https://urmuga.eus/

Urmuga mendi-ibilaldi musikatua da, natura eta gizakia musikaren bidez harremanean jartzen dituena. 20 bat egunetan zehar egingo dugu ertz luzearen zeharkaldia oinez, Anguloko portutik Hiru Erregeen Mahairaino, espedizioan mendizaleak eta musikariak bat eginda. Arrasaten geldialditxo bat egingo dugu, eta Goikobalun, Chruinne talde galiziarrak kontzertu bat eskainiko digu.

*Urmuga es un paseo musical por la naturaleza y el hombre a través de la música. Único en su género. Durante unos 20 días completaremos la travesía a pie por la larga arista, desde el puerto de Angulo hasta la Mesa de los Tres Reyes, con la unión de montañeros y músicos en la expedición. Habrá una parada en Arrasate y el grupo gallego Chruinne aprovechará para ofrecer un concierto en Goikobalu.*

URMUGA
mendiak eta musika

uztaila
**18**
*julio*

# Haurreskolari

**dantza** | **20:00** | **Herriko plazan**

## *Tio Teronen semeak (Euskal Herria)*



Gure koadrila xelebrea ikastetxera itzuli da! Bertan, gure bizitzako parte izan diren egoera eta doinuen bidez, une ahaztezinak biziberrituko dituzte. Ikasitakoa desikasten saiatuko dira, ikusleen laguntzaz, ikasketa-prozesu berri bat umorez eraikitzeko asmoz. Denok gelara, txirrina jo du eta!

¡La célebre cuadrilla ha vuelto al cole! Revivirán momentos inolvidables de nuestras vidas con conocidas melodías. Intentarán desaprender lo aprendido para, de la mano del público, construir un proceso de aprendizaje desde el humor. Todo el mundo a clase, ¡que ya ha sonado la campana!



# Zinea Monterronen

uztaila
**19-25**
julio

22:30 | Monterron parkean




**uztaila 19** *julio* — euskaraz




**uztaila 25** *julio* — euskaraz

Zinea Monterronera bueltatuko da uda honetan bi filmekin. Lehenengo asteburuan "Kantauri" dokumental ikusgarriarekin gozatzeko aukera edukiko dugu. Kantaurik itsasoaren aberastasuna erakutsiko digu, ingurunearen eta bertan bizi diren animalien arteko harreman konplexuak barne.

Bigarren asteburuan "El Vasco" komedia proiektatuko da. Mikelen istorioa kontatzen du, urruneko senitarteko baten gonbidapena onartu eta Argentinako herri galdu batera bizitzera joatea erabakiko duen 35 urteko gaztearena.

*Este verano vuelve el cine a Monterrón con la proyección de dos películas. El primer fin de semana tendremos la oportunidad de disfrutar de "Kantauri", que nos enseña la riqueza del mar Cantábrico, incluidas las complejas relaciones entre el medio y los animales que en él habitan.*

*El segundo fin de semana se proyectará la comedia "El Vasco". Narra la historia de Mikel, un joven de 35 años que acepta la invitación de un familiar para cambiar de aires y marcharse a un pueblo perdido de Argentina.*

aed arrasate euskaldun dezagun




Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasate
ATE BERRIAK ZABALDUZ

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO